

Altza-Herrera

Larraitz Garmendia (fnoa.: 943391267)

altzako emakumeen hiru elkarteek ekitaldi ugari antolatu dituzte aurtenorako. Hauek dira, besteak beste, ikasturte honetarako azpimarratu daitezkeen ekintzak: literatura, kultur bidaiak, emakumearen astea edota zabalkunderako zenbait hitzaldi eta ekitaldi.

Horrez gain, Ostadar, Uztai Belar eta Elkarte Berri emakume elkarteek kultur edota kirolarekin zerikusia duten ikastaroak antolatu dituzte.

Dudarik gabe, aurtengoa arrakasta gehien izan duten ikastaroen artean dantzei eskainitakoak ditugu: aretokoak, salsa, merengea

Emakumeak ekimen handikoak



eta abar. Bestalde, aukeratu-tako ikastaroen gaiak emakumezkoen gehien interesatzen zaizkienak dira: medikuntza naturala, sexologia edota informatika.

tzen zaizkienak dira: medikuntza naturala, sexologia edota informatika.

Intxaurrondo

Berrikuntza lanak egiteko proiektuak Marrutxipin

Karlos Garcia (fnoa.: 943288286)

marrutxipi behekoan berrikuntza lanak egiteko proiektua hilabete barru aurkeztuko du Udalak. Duela hilabete batzuk eremu honetako beharrak ikusita, Udal arduradunek berrikuntzak egiteko premia ikusi zuten. Izan ere, azken urteotan etxebizitza berri ugari eraiki diren arren, Marrutxipi aspaldikoa da.

Aurkeztuko den proiektu honek, besteak beste, errepidea zabaltzea, espaloi bat egitea edota isurbideak eta argi sarea hobetzea proposatuko ditu.

Proiektua hamar bat milioi pezetako aurrekontua izango du eta datorren urtean jarriko da martxan.

Herrerako Axisklo elkartearen ikastaroak

Axisklo atsedean elkarrekin irekia du ikasturte honetarako izenemate epea. Talde hau San Luis Parrokiako behealdean biltzen da larunbatero 16.00etatik aurrera eta bertan antolatzen dituzte gazteentzako ekintzak. Horrez gain, urtean zehar txangoak, irteera kulturalak eta kirola egiten saiatzen dira.

Kudeaketa egiteko Informatika Teknikaria

Ikas ezazu etorkizun handiko lanbide hau

- Kudeaketa eta informatika prestakuntza osoa eta gaurkotua egin nahi duten ikasleei zuzendua
- Iraupena - 9 hilabete (urritik ekainera)
- Hasiera data - urriak 9

• Titulazioa - IBM Informatika Agiri Ofiziala - Madrilgo Informatika Fakultate Politeknikoa

• Ikasketa plana

- | | | |
|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------------|
| • Informatikaren hastapenak | • Datu baseak, ACCESS | • Noninak eta Gizarte Segurantzak |
| • MS-DOS/WIN 98 | • Power Point | • Mekanografia |
| • Testu tratamendua, WORD | • C bizkuntza, Visual Basic | • Merkataritza mailako ingelese |
| • Kalkulu-orria, EXCEL | • Kontabilitate orokorra | • INTERNET |
| | • Fiskalitatea | • Komunikazioa eta artxibategia |

- Lan poltsa -

Centro Informático
GU-VI


Zabaleta kalea 49, 2.-ezk. • Tfnoa.: (943) 275092

24 urteko esperientzia



Eguneko menuak • Sagardotegi menua • Asteburuko menu bereziak
Aurrez eskatutako menuak • Kaxuelitak • Razioak • Tablak

Ikatz kalea 17
(Juan de Bilbao)
Tfnoa.: 943-421780
Parte Zaharra



EUSKALTEGIA

ULI ALDE
maila guztiak

Jose M^a Soroa 10 • Tfnoa.: (943) 28 13 69